


# OIHU EGIN



IRUDIAK: MARIA ALTUNA  
GIDOIA: KIKE INFAME

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAIA  
Larrendi Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional



Tknika

inmaulada

easo  
politeknikoa

# Komiki hau “COVID eta nerabeen osasun mentala” proiektuaren testuinguruaren barnean kokatzen da.

## Telefonoak:

**112**

(Larrialdiak)

**024**

(Espainiako suizidioaren prebentzio telefonoa)

**900 840 335**

(Badabidebat)

**717 003 717**

(“Telefono de la Esperanza”)

**900 203 050**

(Osakidetza)

## OIHU EGIN

© 2022 María Altuna (marrazkia).

© 2022 Kike Infame (gidoia).

© 2022 FP Euskadi (edizioa).

**Lehenengo edizioa:** Irailak 2022.

**LG:** D 00898-2022

Proiektu hau 2020 urtean jaio zen, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola (TILI) eta CIFP Easo Politeknikoa LHIIaren eskutik, Tknikaren sostengua edukita.

Ilusio osoz eman genion hasiera gizartean eta batez ere nerabe eta gazteen artean azaleratzen hasi zen behar bati erantzuna eman nahian.

Azken urteetan, pertsona asko izan dira aldarrikatu dutenak osasun mentalaren alde lan handia egiteko dagoela, gainera, pandaemiaren eraginez behar hau nabarmendu egin da, bereziki nerabe eta gazteen artean.

Osasun mentalaren inguruan hitz egiten dugunean, beldur handia dago oraindik suizidioaren hitza entzuten denean. Isiltasunean mantendu den gaia da, baina egunerokotasunean gure inguruan dagoen errealitatea da. Izan ere, Espainian naturala ez den heriotz kausa nagusia da. 2020ko datuen arabera, 3.941 pertsona hil ziren suizidioaren eraginez, 11 suizidio egunean hain zuzen ere. Urte horretako abuztuan, %34ko hazkuntza eman zen. Datu hauei suizidio saiakeren datuak gehitu behar zaizkie, izan ere, MOEren arabera suizidio bakoitzeko 20 saiakera egon daitezke. Eta datu hauen atzean ezin ditugu ahaztu suizidioaz hil diren pertsonen senide, lagun eta ingurukoak, egoera honen ondoriozko sufrimenduz bizirauten jarraitu behar dutelarik, askotan inongo sostengurik gabe. Beraz, gizarte osoari eragiten gaituen fenomeno batez hitz egiten ari gara.

Errealitatea horrela izanda, gaur egun oraindik estigmatizazio, mito eta ezjakintasun anitzen inguruan kokatzen da fenomeno hau. Gizartean oso errotuta dagoen sinesmena da suizidioaz hitz egiteak suizidioa sustatzen duela. Baina urteak dira iada egiaztatu dela hitz egitea dela prebentzio eta promoziorik sendoena, “Hitz egiteak biziak salba ditzake” eta.

Garaia iritsi da gai honen inguruan hitz egitekoa eta komiki honek aurrera pauso horretan parte hartu nahian jaio da. Sentsibilizazio gisa, hezkuntzako arloan irakasle eta ikasleen artean eztabaidarako espazioak eragiteko. Kontzientzia hartzeko, emozioei izen abizenak jartzeko, suizidioaren erroan dauden gaiak azaleratzeko eta prebentzioaren borroka honetan denok bat egiteko.

ISTORIO HAU EDOZEIN HIRI EDO  
HERRITAN GERTA ZITEKEEN.

BILBON EDO NEW YORKEN  
GERTA ZITEKEEN...

PARISEN EDO TARIFAN.

DEMAGUN, ADIBIDEZ,  
TOLOSAN GERTATZEN DELA.



BEGIRA NOR  
DABILEN HOR!

JAJAJA.  
KAIXO, OIHAN.

JAJAJA.  
ZERGIATIK EZ  
ZARA IGIOTZEN?

ETA BERE PROTAGONISTA MARIA  
IZAN ZITEKEEN, KIKE IZAN  
ZITEKEEN...

ENARA EDO OIER IZAN  
ZITEKEEN...

DEMAGUN OIHAN IZENA DUELA,  
ADIBIDEZ.




ISTORIO HAU ABESTI BAT EDO  
LIBURU BAT IZAN ZITEKEEN.

PELIKULA EDO MEZU BAT  
BOTILA BATEAN.

DEMAGUN KOMIKI BAT DELA,  
ADIBIDEZ.

ZER MODUZ  
ASTEBURUAN?

A ZE  
PARTIDA!



TIPO HAU GERO ETA  
ARRAROAGOA DA.

TRISTE DAGO, EZ  
DU EZER ESATEN.

BERE BOLARA  
DOA.



AITA, AMA!!  
ETXEAN NAGO.



MOTEL,  
ZER MODUZ  
KLASEAN?

GERO KONTATUKO  
DIDAZU ZER MODUZ,  
PRESAKA NABIL. ORAIN  
MAIL BAT BIDALI BEHAR  
DUT. ZURE AMA LASTER  
IRITSIKO DA  
LANETIK.

ONEI,  
BAINA...



DENA ONDO?

BAI, GAUZA BAKARRA...

OSO ONDO.  
ITXARON,  
BIDEO-DEI  
BATEAN NAGO.



A ZER  
BIZIMODU  
PETRALA!



Eguneroko maitea.

Ozkenean dbh amaitu dut eta zentro berri batean hasi naiz.

Noizean behin, komiki klaseak ere izango ditugu.

Hasiera berri bat izan daiteke.




KAIKO, JENNY NAIZ...

ETA ZUK NOLA DUZU IZENA?



OIHAN.

PLAZER BAT. BERA LEIRE DA.



AIZU, KOADRILAREKIN ETOR ZAITEZKE ESKOLA OSTEAN.



JAJAJA, A ZER MOZKORRA LEHENGOAN.



ZUK EZ DUZU EDATEN OIHAN?



EDAN!  
EDAN! EDAN!

OSO ONDO!!!

BLUF. BIHAR  
PARTIDA.

ENTRENATZAILEARI  
GUTXI GERATZEN  
ZAITO IRABAZTEN  
EZ BARDUEN.







AIZU! ZEIN KAMISETA POLITA!

ZURI ERE GUSTATZEN ZAIZU MANGA?

JENNY! BAI.

NARLITO NIRE KUTTUNA ZEN TXIKITAN.



NIRI MARRAZTEA ASKO GUSTATZEN ZAIT.

MARRAZTU ERE EGITEN DUZU?



BAI, ASKO GUSTATZEN ZAIT. MANGA GUSTUKO DUTEN LAGUN GUTXI DITUT, BAINA NIRI ASKO GUSTATZEN ZAIT.

BENETAN?

BAI, BATZUETAN PENTSATZEN DUT NIRE BIZITZA MANGA BEZALAKOA DELA.



EZ NAUTE ULERTZEN, ETA EZ DAKIT NOLA EGIN ULER NAZATEN.\*

\*MANGAK AMATERATIK HASI ETA ESKUINETIK EZKERRERA IRAKURTZEN DIRA.

NIRI ERE MANGA ASKO  
GUSTATZEN ZAIT.

HANDITZEAN MANGA  
ESTILOKO TATUAJEAK EGITEA  
GUSTATUKO LIZTAIDAKE.

BESOAN  
MARRAZKI HAUEK  
EGIN DITUT.



UTZI BESOAN...

EDERRA EGINGO  
DIZUT.



EZ, EZ DA  
BEHARREZKOA.


ENE! ZENBAT  
ORBAIN.

BAIETZ, EZ ZAIKOLA  
KOSTATZEN.



¿?

UTZI! JOAN  
BEHARRA  
DAUKAT.



EGUN BATZUTARA...

KAIKO, JENNY.

NIRE MANGA  
KOMIKIAK EKARRI  
DIZKIZUT.



ZUK EDUKITZEA NAHI DUT.

ZAUDE OIHAN, EZ JOAN.

OIHANEK KEZKATUTA NAUKA.

BERE BILA JOAN BEHAR DUT.



OIHAN!!

NI NAIZ...

JENNY.




ONDO ZAUDE?

EZ DAKIT ZER GERTATZEN DEN.

ZURI LAGUNTZEKO NAGO HEMEN, NIRETZAT GARRANTZITSUA ZARA.

EZ ZAUDE BAKARRIK. 😊😊😊





ZERBAIT KONTATU  
BEHAR DIZUET.



LITZIDAZU ZURE  
EGOERARI BURUZ  
HITZ EGITEN.

ELKARRIZKETA  
KONFIDENTZIALA  
IZANGO DA.



NIREKIN HITZ EGIN  
DEZAKEZU EDO  
EROSOAGO ZAUDEN  
BESTE IRAKASLEREN  
BATEKIN.

EZ DUGU NAHI  
ZU BAKARRIK  
SENTITZEA.



LAGUNDU  
NAHI DUGU.

ISTORIO HAU ABESTI  
BAT IZAN ZITEKEEN...

EDO LIBURU BAT...

FILM BAT ERE  
BAI.



EGUNKARIETAN  
INOIZ AGERTUKO  
EZ DEN ISTORIO  
TXIKI BAT DA.



NAHI BADUZU,  
ETORKIZLUNEZ  
BETETAKO ISTORIA  
IZAN DAITEKE.



ZUTAZ ETA NITAZ ARI  
DENA.

ETA ITXAROPENEZ BETETAKO  
AMAIERA IZAN DEZAKE.

MLINDŪIA JENDE  
EZBERDINEZ BETETA  
DAGO.



EDERRAK,  
ITSUSIAK...

ABERATSAK,  
POBREAK...

ALTUAK,  
BAXLUAK...

DENOK  
GARA  
BAKARRAK.

NORMALA DA BATZUTAN  
ULERTZEN EZ  
ZAITUZTELA SENTITZEA,  
LEKUZ KANPO  
AURKITZEN ZARELA  
PENTSATZEA.

ETA ZERBAIT  
GUSTATZEN EZ  
ZAIZUNEAN...

... EGIZU  
OIHU.



AMAIA DUT IZENA.



MARKEL DUT IZENA.



JEREMY DUT IZENA.



LAIDA DUT IZENA.



IÑAKI DUT IZENA.



ELI DUT IZENA.



NIRE IZENA ESTI DA.



NIRE IZENA ASIER DA.



MENTXU DUT IZENA.



EZ ZAUDE BAKARRIK.

LAGUNTZA BILA  
EZAZU; OIHU EGIN,  
KONTATU, ASKATU...

MINTZA  
GAITEZEN!

